

Iñaki Antiguñeda

## Norabide argian, uztarran

**B**idea ibiliz egiten da. Are gehiago, dabiltzanek egiten dute bidea, ez beste inork. Euskal Herrian hasiak gara bestelako bidea ibiltzen, birit-bilgunean denbora luzea eman ostean. Baina inoiz ez da berandu bide berrian abiatzeko, norabidea sen politikoz az ondo zehaztuta badago. Izan ere, urratsetan dudazko asko izan daitezke gerora begira, baina gauza bat dudagabea da: norabide argi batean izango direla, izatekotan. Ezker abertzalearen apustu berriak Altsasu izan zuen abiapuntu, eta inflexioak berez zituen arriskuak estrategia eraginkorrerako aukera bihurtzeko borondatea izan zuen oinarri. Urrats hark beste batzuk ekarri ditu, loturak askatzen dituen katean.

Aldebakarrean hasi zen bidea, inoren zain geratu gabe. Horixe giltza, batzuen eta besteen jarrera ulertzeko. Hortaz, Estatuaren erabakiek ez dute gehiago mugatuko ezker abertzalearen bidea. Estatuak oztupoak jartzeko ahalmena badu, bistakoa da, ez ordea ahibezia. Aztoratuta dirudi, barruko urduritasuna azaleko balizko irmotasunez mozorrotu nahian. Jakin badaki konfrontazioa datorrela, gutxien nahi zuen eremura etorri ere. Gero eta gehiago da Okerbide Estatuak, askoren aburuz, hemen, han eta kanpoan. Ezker abertzalearen zatiketa espero, eta behar, zuen Estatuak, konfrontazioari begira independentistontzat zama astunegia izango zelakoan, eta berarentzat arrisku onargarria. Baina ez da halakorik suertatu, eta zirrikituak zabaltzekotan euren lerroetan zabaldu dira, hemeroteka iturri, togadunen artean bertan ere.

Formazio politiko berriaren beharra du ezker abertzaleak. Horixe ere mandatua, *Zutik Euskal Herria* ebazpenarena. Noizbait gauzatuko den mahai politikoan izateko bide. Formazio berria, politika bera



DANI BLANCO

ulertzeko modu berriturako tresna. Apustu estrategiko baten barruan beti ere, epe motzekoa luzerako bidean hartzen duena. Hortaz Sortu, han, legez kanpo utzi badute ere, momentuz, hemen zilegi dihardu bidea egiten, aurpegia agerian, legalizazioaren bataila irabazita dagoelakoan, han atzeratzen saiatu arren. Hortaz, gero eta zabalagoa da Hego Euskal Herria eta Espainia bereizten dituen lubanarroa. Badirudi aparteko garrantzia ematen dietela handik datozen hauteskudeei, nonbait ezker abertzalerik gabeko hauteskunde-zikloa ixteko irrikitan daudela. Estatuaren arrazoiak arrazoi, etorriko diren hurrengo hauteskudeei begira denbora irabazi nahian edo, hemengo denbora handik kontrolatuko balute bezala.

Bitartean, aldebakarrean hasitakoa aurrera doa, gizentzen, bidean konpromisoak gauzatuz eta, ondorioz, bidaideak bilduz, horixe jarri baitzen helbide, eragile aktiboak metatu eta pasiboak aktibatu, atzekoz aurrerako norabide argi batean. Ezker zabaleko aktiboen fusio beroa, aldaketarako giltza. Biltze horrek hauteskudeetan behar du izan, Sortu legala izan edo ez, ezker soberanistaren subjektu politiko zabal bezala, konfrontazio demokratikorako parametro sozio-politikoak eta sozio-ekonomiko nagusiak programa-ardatz ipinita. Euskal Herria bai, baina ezkerretik. Euskal Estatuak lortu arte, baina ezkerretik.

Eraginkortasuna eta sinesgarritasuna txanpon bereko bataillak dira. Batak bestea behar du. Hortaz, ganorazko proiektu politikoak hiru ardatz bildu behar ditu: instituzionala, kalekoa eta ideologikoa, hirurak uztarran. Uztarri hori eguneroko jardueran oinarri hartzen duen proiektu politiko partekatua funtsezko tresna da arlo politikoan zein sozialean ditugun erronkei eusteko, espetsxe-politikatik hasita. ■

Ganorazko proiektu politikoak hiru ardatz

bildu behar ditu: instituzionala, kalekoa

eta ideologikoa, hirurak uztarran.

Uztarri hori eguneroko jardueran oinarri

hartzen duen proiektu politiko partekatua

funtsezko tresna da arlo politikoan zein

sozialean ditugun erronkei eusteko,

espetsxe-politikatik hasita